

NAZIO, TRADIZIO, ALA ZER DEMONIO GAREN

JOXE AZURMENDI

ORAIN, Inkisitore Haundiak berak ez du beste irtenbiderik asmatzen Inkisizioa salbatzeko. Inkisizioa erreformatzea baino... Hemendik aurrera Inkisizioari ez zaio Inkisizio esango. Izen berri polit bat emango zaio. Oraindik ez dakigu nolakoa. Baina, Maria Dolores, esate baterako. Goizetik gabea, zentralismoari ez zaio adiskiderik gelditu. Estatu zentralista lehenbailehen erreformatu behar dago, inola salbatzeko. Paper berriberriak eta izen polit bat emango zaizkio. Barberoak emango dio labainmozte elegante bat kaskarrean. Traje dotorea jantzi. Eta horra Estatu berria. Oraindik ez dakigu, Estatu federal edo nola deituko den. Baina, Adolfen Estatu edo Neo-Adolfismo, edo horrelako zerbaitei berrabaita liteke agian.

Oso zaila da ulertzen, zergatik orain denak Estatutuaren alde omen dagoen derrefente: Gu geu, Estatutuaren eta askoz gehiagoren alde gagoz. Gure arrazoiak ez da batere berria: Euskal Herria herri bat dela eta nazio bat dela eta beste edozeinek haina eskubide duela bere burua gobernatzeko. Baina beste horiek ere arrazoi duten, ezin asmatu dugu, kaskoa bero-berotu arren.

Tradizio historiku bereziak aipatzen dituzte. Karlitzak desagertu dira

noh bait, hauteskundeon graziaz, baina karlismoa guzuz nagusitu dela ematen du. Tradizioak, halare, oso politikak eta kurioesak, hamar eta hogei mila dagoz bazterretan. Eskualdeen autonomi-tradizioak baino zaharragoak eta biziagoak. Santiagora pelerinazioan joateko tradizioa, esate baterako, edo Bazko loratsutan konfesatzea eta jaun hartzea, Konstituzio nazionalan sartu beharko ote ditugu? Soroak bedeinkatzea eta San Joan sua eta Olentzaro ez aipatzeko. Edo etxe-guduen eta kolpe militarren eta palazio-intrigen eta Diktaturen Estatutu bereziak antolatutako beharko ote ditugu? Tradiziozko samar bihurtu bait dira. Eskualdeen edo erreinu zaharren "autonomi tradizioak" aspaldian dagoz hil eta zerraldo. Bizi-bizi dagoena, autonomi nahia da, nahia, ez autonomi-tradizioak, horiek aspaldi zanpatu zituzten eta. Bizirik bagoz, ez legoke zer berbiztu. Bestalde, zertara dator, sozialistek eta, orain tradizioak aipatzea, tradizio horietak beti gogorik burukatu izan eta gero?

Haundiak gertatzen zaizkigu tradizio hauekin. Lehen txarrak ziren eta, horiek desegitearren, ez dakit zenbait gerra egin genuen eta zenbait amaren seme infernura bidali genuen. Orain on-onak eta politikak dira. Lehen, haiek desegiteko amorratuta zebiltzanak, progresistak ziren; eta progresistek orain berririo ipini nahi dute, lehen kendutakoa. Gero, azkenean lortu genuen tradizio horik akabatzea. Eta hil ziren hil baziren: zenbait eta luzaroago hilda egon, biziago omen dabilta. Bitxitasunak ez dira bukatu: Nafarroa zaharreko tradizio zaharrak, estatutismoaren sustrai zaharrak, arrazoiak orain, doi-doi ailegaltzen dira Luzaidaraino eta stop, Donibarrera eta Donapaleura eta dira pasatzen... Berenak ez diren "beren mugak" arrazoiak ere.

Orain denak Estatutuak nahi dituzte. Baina ez zaigu esaten, zein den Estatu espainolaren antolera berria Estatuturik sartzeko oinarri eta arrazoiak. Lehen hainbeste arrazoi eta printzipio sakratu entzun dugu, ez Forurik eta ez Estatuturik eta ez euskaren ofizialkidetasunik eta ez kuku-mikurik onartzeko. Orain zer arrazoi eta oinarriarik gabeko Estatuturen batzu izango direla, azkenean zerutik helduko zaizkigunak. Ez dakigu zegatik, baina gogoak ematen dienean, hegoaizea ere sartzen da mendarteotan.

Foruak kendu zizkigutenean, arrazoiak argi eta garbi ematen zizkigutenean: euskaldunak beste edozein bezalakoeak zirela, Euskal Herria naziorik ez zela eta burujabetasunik ez zegokiola, eta abar.

PSOE-k, orobat, bere tradizio antiferal eta antiabertzale eta anti-Estatutu lizean, argi eta garbi eman izan ditu arrazoiak: Euskal Herriak ez duela soberania edo burujabetasuna legitima lezakeen ezer; ez historia, ez tradizio, ez kultura, ez hizkuntza, ez nazionalitatea ez ez San Fermin. Ezer ez. Orain, bada, euskal kultura inoiz baino galdugoa (herri kultura), euskarria inoiz baino galdugoa (herriaren), nazionalitatea inoiz baino zatituago eta haustiago, eta ez dakigu zerk legitimitzen dituen Estatutuak oinartzen. Eta gustora entzungo genuke arrazoiak, gustora ere: ez bait-zaigu batera gustatzen gauzak hala eta hola egiten ibiltzea, eta ez jakin zergatik. Hori frankismo garaiketa metodua zen, hiritarrak adin larria heldu gabe zegoeneko, eta superaturik dago, noski.

Guk geuk ez dugu nahi Estatutua, antzina, noizpait, Bizkaiari "nación separada" esaten omen zitelako; edo Nafarroa Erreinu aparte omen zelako, bere Errege eta guzi; eta Foruak izan genituelako, baina kendu egin

zizkigutenez gero, konpentsazioaren bat nahi genukeelako. Ez. Deus horrelakorik sekula izan ez bagenu ere, Estatutu batetarako ez genukeela eskubide eta arrazoi gutiago izan, iruditzen zaigu. Herri bat gara eta nazio bat gara, uste dugu, eta ez da asko, baina aski delakoa gaituz, Estatuturik izateko arrazoi eta oinarri bezala. Jakina, nola garen herri bat eta nazio bat, eta nolako herri garen eta zer nazio, ikusi nahi dugunean, gurek ere, beste modura, begiratu ohi diogu historiari. Baita prehistoriari ere, guk. Baina, deskidu santu batean, euskaldunak noizpait kanibal izan zirela aurkituko bagenu, ez litzazuke burutik pasako, kanibalismoaren tradizio beneragarri harentzat Estatuturik eskatzea...

Gu ez gara tradizio eta kuriositate almainarik. Bai, tartaildu samarra, baina herri bat gara, nazio bat gara. Horixe da dena.

Eta guk Estatuturik nahi baldin badugu, ez da, herri honen antzinako tradizio beneragarriak historiaren museoan gorde nahi genituzkeelako. Monarkia ere berririo sartu dugu. Baina bai, noizpait historiari izan omen dituen beregintasan eta burujabetasun formak beronkistatuaz (eta, printzipialki behintzat, guri berdin-berdin litzazuke forma horiek behin ere izan ez balira gureak), burujabetasun eta beragintasan piska bat irabazten duelako gure herriak. Bideak mila izan litezke eta bat horixe da. Historiarekiko eta tradizioarekiko erreferentziak dira guretzat inportantzia gutien-gutien dutenak. Azkenean gauza inportante bakarra, herri hau da: haren bizitza eta haren eskubideak. Estatutuaren beste arrazoiak ez dago.

Eta hori aitortzea inportante iruditzen zaigu. Ez, Estatutuan horrela kontzesio haundiagoak ala tipiagoak

lortu ahal izateko. Hori beste gauza bat izango da. Baina Estatutuak bere egiazko sentidua izan dezan.

Ehun eta hegariotz urtetan ukatu zaiguna, hori da: Euskal Herria herri beregain eta burujabe dela, nazio soberano.

Nortasunak, herri nortasunak ere, ez dagoz beti berdin. Eboluziatu egiten dute, aldatu egiten dira. Norberaren konzentzia, orobat, eta berdin herriaren autokontzentzia, historiarekin eta bizitzako gorabeherekin ibiltzen dira gora eta behera. Oraingo emakume baten konzentzia ez da Erdi Haroko emakumearen konzentzia, autokontzentzia. Emakumearen nortasuna ere aldatu egin da. XVI-gan mendean, Euskal Herriak, ez nortasuna eta ez autokontzentzia zituen orain bezalakoa. Hein horretan arrazoi dute, nazionalitateak ez direla eternuak, esaten dabilzanek. Arrazoi ikaragarriak ez bada ere horixe.

Lehenago Euskal Herriaren nortasuna nolakoa eta norainokoa zen, berdintu zaigu. Eta Euskal Herriaren autokontzentzia nolakoa zen ere, Faktirik egin ahal zuen Gaztelarekin ala menperatu egin ahal zitzaion soil-soil, bilidurrez galduta, eta Foruak berri sortu ahal zituen ala Txinako Kaiserrak eman zizkion, bost axola. Eta, Foruak izan arren, Erregek zenbait ahalmen eta sarbide zuten hemengo arazoetan, bost eta erdi axola. Orduko euskaldunek orduko beren konzentzia eta nortasuna zituzten. Guk, gurea. Euskal Herriak, beste edozein herri bezala, historia politagoa ala itsusiagoa izan dezake. Horregatik inor ez da eskubidedunago ala gabeago.

Oraingo Euskal Herriak bere oraingo nortasuna eta bere oraingo nazio-kontzentzia ditu. Eta horietan araberako burujabetasuna dagokio, bere buruarekin eta bere inguruko ala urrutiko beste nazioekin bake-bakean bizitzeko.

ASI ES SI OS PARECE

Marx sabe donde

Afortunadamente ha pasado ya a la historia aquel viejo ateísmo de quienes sentían un repulés ante el sólo nombre de Dios. Aunque no sé si es muy afortunado ese "afortunadamente" ya que, en definitiva, en aquel odio a Dios había una secreta raíz de amor y aceptación, mientras que los ateos modernos han descubierto un odio mucho más inteligente: la indiferencia.

Por eso causa una cierta sorpresa encontrarse con gente que se siente envarada a la hora de hablar un lenguaje que —se quiera o no— está tejido de expresiones religiosas o ex-religiosas. Es, realmente, muy difícil hablar o escribir en castellano sin tropezar con el nombre de Dios. Porque resulta que, cuando hacemos una cosa de cualquier manera, la hemos hecho "a la buena de Dios" o "como a cada uno Dios le da a entender". Cuando algo parece imposible comentamos "que baje Dios y lo vea". Si algo nos sale mal se nos escapa un "¡Vaya por Dios!". Si los chicos llegan tarde a casa decimos que "Dios sabe dónde estarán" y si son especialmente malos que "están dejados de la mano de Dios". Formulamos un deseo exclamando "¡quiera Dios!". Lo que nadie conoce es algo que "no sabe ni Dios" y donde se arma la marimorena es que "se arma la de Dios es Cristo". "¡Dios dirá!" exclamamos deseándonos suerte y juramos que "como hay Dios" haremos esto o aquello. Nos despedimos diciéndonos "adiós" y no falta el chusco que dice que "gracias a Dios es ateo". Dios se ha pegado a nuestro lenguaje de modo que querer desprenderse de él es casi como querer vivir o hablar despeleados.

Aunque no falta quien encuentra la nueva fórmula de hablar. Me ha hecho gracia encontrar en un artículo del pasado domingo —en "El País"— el gran descubrimiento de Sergio Vilar que nos habla de unas críticas "condicionadas por Marx sabe qué vinculaciones". No está mal. Podríamos empezar a conjugar "a la buena de Marx", "¡Vaya por Marx!", "estar dejado de la mano de Marx", "armarse la de Marx es Lenin", "trabajar como Marx nos de a entender" y despedirnos de los amigos diciendo "amarx". Lo que es el progreso.

J. L. MARTIN DESCALZO

Despidos en la enseñanza privada

Sr. Director:

Al amparo del despido libre existente en la actualidad, acaban de realizarse una serie de despidos en centros privados. Aprovechan la época de vacaciones para que se informen de ellos el menor número de personas posible y no haya posibilidad de movilización en la enseñanza.

El despido libre pone al empresario en una situación de privilegio, que le permite desembarazarse de un profesor determinado que resulte "no grato" por varias razones: ideología personal, actitud reivindicativa, etc., mencionando una o varias de las muchas circunstancias que son causa de despido procedente. Estas causas, a veces falseadas en la carta de despido, en otras ocasiones no probadas, no son al menos siempre los motivos verdaderos, de fondo, de los despidos. Pero los directores echan mano de ellos seguros de que al fin el despido siempre se lleva a efecto, aunque haya que indemnizar, chantajear.

Por motivos ideológicos han sido despedidos profesores únicamente por no tener las mismas ideas que las del Centro en el aspecto religioso o político. Este hecho no es causa de despido procedente, siempre que no se use el Centro docente para imponer o coaccionar en materia ideológica. Sin embargo, los directores suelen añadir otros datos no veraces, exagerados o falseados, que, de acuerdo con la legislación vigente (Art. 35 del Decreto Ley del 4-III-77) si pueden constituir motivo de despido.

La bandera que enarbolan para justificar estos despidos es la llamada "libertad de enseñanza". La "libertad de enseñanza" defendida por la ley es un concepto unilateral de la libertad, cuando se aplica sin tener en cuenta otras libertades. Si toda familia puede optar al tipo de enseñanza que prefiere para sus hijos, no es menos

cierto que todo trabajador, y lo dice incluso la ordenanza laboral, no puede ser despedido procedentemente a causa (entre otras) de religión, opinión política u origen.

Así, personas que pueden ser muy positivas por sus conocimientos, por sus dotes pedagógicas o por sus muchos valores humanos, son radicalmente apartados de la enseñanza por el hecho de mantener en su fuero interno una serie de opiniones.

Hay que tener en cuenta, además, que la libertad de enseñanza es esgrimida desde posiciones de clarísimo privilegio. ¿Se puede hablar de libertad de enseñanza, cuando la única existente por el momento es la de ellos, la enseñanza católica de los colegios privados?

El profesor se ve obligado a trabajar en dichos colegios, pues no encuentra otros. Otros casos de despido han tenido causas llamadas "objetivas" que, en realidad, pueden ser muy subjetivas y muy relativas. A algunas se les ha imputado su ineptitud en el trabajo, manifestada en desórdenes en las clases, faltas de disciplina en el alumnado o hechos aislados como pegar a un alumno en una situación extrema. En este aspecto consideramos la línea seguida en muchos colegios, en los que a los profesores se les exige en la clase un control total de la disciplina y una autoridad, sin darles las bases de esa autoridad la más mínima libertad de actuación, desahaciendo a veces lo que el profesor ha

hecho y así son los mismos empresarios los que se proponen quitarle autoridad o poder de decisión.

Por lo que toca a trabajadores, a todos los trabajadores de la enseñanza de nuestra provincias, la Comisión de despidos os hacemos un llamamiento a la solidaridad y a la defensa del puesto de trabajo.

COMISION DE DESPIDIDOS DE LA ENSEÑANZA DE VIZCAYA

¿Más alcaldadas?

Sr. Director:

Recientemente se han publicado por el Gobierno Suárez una serie de disposiciones para que las Corporaciones Locales convoquen la realización de pruebas selectivas RESTRINGIDAS para incluir en la Plantilla de Funcionarios en propiedad a los que están ocupando plazas con carácter de contratado, interino, temporero o eventual. Dichos funcionarios fueron designados por autoridades franquistas con el dedo. Supuesto una injusticia, no se dio oportunidad a nadie, no hubo concurrencia para efectuar pruebas de ingreso; fueron Alcaldadas. Ahora con unas disposiciones anticonstitucionales, se quiere consagrar en unos puestos a quienes obtuvieron el favor del dedo aún después del 15 de junio, se pretende dar legalidad a infracciones legales. Los nombramientos interinos, temporeros o eventuales estaban prohibidos por la Ley, sólo estaban permitidos con ca-

rácter excepcional, para trabajos extraordinarios y de ningún modo podían rebasar los seis meses, Ley 108 de 1963, 1963 N.º 8.

Comunico esto a usted por si lo considera como noticia para que por las Asociaciones Políticas y de Vecinos se desarrolle una campaña que obligue a los Ayuntamientos a no convocar pruebas para admisión de personal hasta que se constituyan los nuevos Ayuntamientos o si se convocan que no sean RESTRINGIDAS.

UN DEMOCRATA

Idoia Estornes Zubizarreta-ri eskerrak

Atsegin, audiarekin irakurri da "Que Mr. le prefet nous dispense..." izeneko zure artikuluo zorrotza Ederki, Idoia, oso ederki. Jarrai aurreruntz orrelaxe.

¿Zer pekatu larrien zigortzat ipini ote zizkion Jaungoikoak gure Euskadi zarrari onako bi izurri ikaragarri auek? Bata, bi erri arroputzen artean bizi-bearra, eta bestea, euskotarrak beti banaturik ibili-bearra.

Bestea, gure auzoko, bi erri txono oiek zentzunera eramatea, zallagoa degu oiek zentzunera eramatea, zallagoa degu

Muxu bat, Idoia, zuretzako

L. tar B.

DEIA

Edita: Iparraguirre, S. A. - Depósito Legal: BI-1679/1977

Presidente del Consejo: Luis María Retolaza - Consejero-delegado: José María Gorordo - Director: Ignacio Iriarte

Subdirectores: Alfonso Ventura, Matin Ugarte y Félix García Olano - Redactores jefes: Manuel Igarreta y Fernando Mugica

Política: José María Ortega, Adolfo Robán y Ota Beunartze

Sociedad y Cultura: María Jesús Gandarabisa, Javier Torres, Florencio Martínez, Juan A. Zubizarreta y Luis Aramburri

Reportajes: Beatriz Iraburu, Vicente Escudero, Ignacio Agreda, Miki Alvarez, José Ramón Echeburu y J. M. Mendizabala

Deportes: José Manuel Alonso, Juan José Baños y Fernando Castro, España: David Barbero, Angel Zubiete y Juan Carlos Ramírez - Mundo: Jesús Góti y María Luisa Idola

Cierre: Félix Macua, Javier Urizar, Economía: José María Urquiza

Entrevistas: Angel Ruiz de Azua, Ramón Esparta y Javier Retegu, Diagramación: Alberto Torregrosa, Aurelio Garrate, Almudena Arce y Angel Vadillo

San Sebastián: Javier de Aramburu, Robert Pastor, Pedro Gabilondo, Eduardo F. Ortuaz, Carmen Alonso, Mikel Atxaga, Miren Jose Anzura, Mañu de la Puente y Jesús Peman

Pamplona: José A. Montón, Fermín Góti, Paco Ego, Jorge Nagore y Nicolás Alday

Vitoria: Ana Garbati, Lourdes Berraondo, Javier Salazar, Luis Carraseta y Gloria Knorr

Madrid: Miguel Moré y Kepa Bodegaray

Director Financiero: Ignacio Nolas - Director Comercial: Juan Arrieta - Director Técnica: José Luis Bilbao

Jefe de Publicidad: Javier Egurola - Adjunto a la Dirección General: Iñaki Etxebarria - Director de Apuntes y Ejercicios: José M. Eizmendi

Servicio informático: EFE, United Press International, Europa Press, Cifra, Logos y AIFI